

## Zikloetarako sarbide proba

Goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko, hemeretzi urte beteta eduki behar dira proba egiten den urtean.

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak, lanbide-heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloetara sartzeko proben deialdia egiten duen ebazpenaren bidez, proba horietarako onarpen-prozedurak aplika ditzake, eskaria eskaintza baino handiagoa bada.

### **PROBA**

Probak bi zati ditu: komuna eta berariazkoa. Amaierako nota bi arlo horietan ateratako noten batez bestekoa izango da.

**Arlo KOMUNAK** erreferentziazko irakasgai hauek ditu:

- Matematika
- Atzerriko hizkuntza (Frantsesa edo Ingelesa hauta daitezke izena ematen den unean).
- Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura

**BERARIAZKO arloan, A, B edo C zer aukera** hartzen den, egindako aukeraren arabera irakasgaiak izango ditu; probarako izena ematen denean egiten da aukeraketa. Hiru aukera horietako bakoitzak lanbide-familia jakin bateko goi-mailako heziketa-zikloak egiteko aukera ematen du.

**Azterketako irakasgaiari dagokienez, bi aukeratu behar dira** hauen artetik, egin den aukeraren arabera:

#### **Berariazko zatiaren irakasgaiak (2 aukeratu behar dira)**

A aukera	B aukera	C aukera
Enpresa-ekonomia	Marrazketa Teknikoa	Ingurumenaren eta Lurraren Zientziak
Filosofia	Industria-teknologia	Kimika
Geografia	Fisika	Biologia

### **SALBUESPENAK**

- Proba osoa egitetik salbuetsita  
Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta dutenak
- Arlo komuna egitetik salbuetsita:  
Beste aukera bateko sarrera-proba gaindituta dutenak.
- Berariazko arloa egitetik salbuetsita:
  - Bigarren edo goragoko gaitasun-maila baten profesionaltasun-ziurtagiria dutenak, egin den aukeraren barruko gai-multzoren batean
  - Egindako aukeraren barruan sartutako gai-multzoren batekin erlazionatutako [lan-esperientzia dutenak](#) baldin eta, gutxienez, lan-jardun osoan aritu badira urtebetez.
  - Egindako aukerarekin erlazionatutako goi-mailako ziklo bateko gaitasun-unitatearekin erlazionatutako bi modulu gainditu dituztenak

Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu eta goi-mailako heziketa-ziklo bat egin nahi dutenak, salbuetsita baitaude zikloetarako sarrera-probak egitetik; horrenbestez, zuzenean egin dezakete heziketa-ziklo baterako matrikula, egoera hori egiaztatzen badute, azterketarik egin beharrik gabe. Ikasleak onartzeko prozesuaren ondorioetarako, zikloetara sartzeko probatik datozenentzat gordetako txandara pasako dira, unibertsitatera sartzeko proban ageri den kalifikazioa dutela

## A AUKERA

A aukeraren parte hartzen duten lan-arloak:

- Administrazioa eta kudeaketa
- Merkataritza eta marketina
- Ostalaritza eta turismoa
- Gizarte- eta Kultur-zerbitzuak

## B AUKERA

B aukeraren parte hartzen duten lan-arloak:

- Informatika eta komunikazioak
- Eraikuntza eta obra zibila
- Fabrikazio mekanikoa
- Instalazioa eta mantentzea
- Elektrizitatea eta elektronika
- Zura, altzaria eta kortxoa
- Itsas arrantza (Akuikultura Zikloa izan ezik)
- Arte grafikoak
- Garraioa eta ibilgailuen mantentzea
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Irudia eta soinua
- Energia eta ura
- Erauzteko industriak
- Beira eta zeramika
- Arte eta artisautza

## C AUKERA

C aukeraren parte hartzen duten lan-arloak:

- Kimika
- Gorputz- eta kirol-ekintzak
- Itsas arrantza (Akuikultura Zikloa bakarrik)
- Nekazaritza
- Elikagaien industria
- Osasuna
- Irudi pertsonala
- Segurtasuna eta ingurumena